

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespina ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2021eko lehen hiruhilekoko eroldari

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko maiatzaren 27ko bilkuran erabaki zuen behin-behineko onespina ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren 2021ko lehen hiruhilekoko tasak ordaindu behar dituztenen erroldari (espediente zenbakia: 2020/1/S328), eta erabaki horren berri 2021eko ekainaren 11ko ALHAOn (64. zenbakia) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta jendaurrean jartzen da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoak betetzeko.

2021eko irailaren 1etik azaroaren 2ra (biak barne) bitarteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2021eko lehen hiruhilekoko ordainagiriak.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek udaletxeko kutzazain automatikoan eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak. Horretarako, udalaren web orrira jo beharko dute (<http://amurrio.eus/es>), "Nire ordainketa" aukerara.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga Bilketarako Araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2021eko uztailaren 9a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA